

ZINEUSKADI 2020

"ZINEUSKADI"

ZE: 02-20

"Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egiten diren merkatuetan, azoketan eta ekimen profesionaletan parte hartzeko ikus-entzunezkoen arloko profesionalentzako laguntza-deialdia"

1.- Deialdia

Zineuskadiren ustez, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin elkarlanean, eta Etxepare Institutuarekin modu koordinatuan, egokia da ikus-entzunezko jarduera profesionala babestea kanpoko ikus-entzunezkoen sektorearekin lotutako azoketan, merkatuetan eta ekitaldi profesioaletan Euskadiko kultura arloko enpresek eta tarteko eragileek parte har dezaten diru-laguntzak emanda.

2.- Helburua

Ekimen honek hainbat helburu du: lehenengo eta behin, aipatutako sektoreak nazioartekotzeko eta bere ekoizpen kulturaletarako irtenbide komertzial berriak topatzeko egindako ahalegina bultzatzea; bigarrenik, Euskadiko kultura arloko eragileen eta kanpokoen arteko topaketak eta trukeak sustatzea; eta, hirugarrenik, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) sortu eta ekoiztutako kultura kanpoan hedatzen laguntzea.

Deialdi honen helburua da **2020**ko ekitaldian ikus-entzunezkoen sektoreko profesionalei zuzendutako laguntzak emateko oinarriak ezartzea. Laguntza horiek **2020ko urtarrilaren 1a eta abenduaren 31** bitartean EAetik kanpo antolatutako ikus-entzunezkoen sektoreko merkatu, azoka edo ekitaldi profesioaletan parte hartzeko dira.

Deialdi horren baitan sartuta egongo dira hauek:

- a) Jardueren programa espezifikoaren eta/edo standaren bidez Euskadiko sektorearen presentzia kolektiboa aurrez ikusita dutenak.
- b) Modu ofizialean azoka, merkaturak edo antzeko izena dutenak eta dagokion jarduera profesionalarekin lotuta bitartekaritza-lana egiten duten pertsonen edo enprenen espresuki zuzendutako jarduera-programa edo gunea eskaintzen dutenak. Deialdi honetan sartuta daude online egiten diren garapeneko foroak edo merkatuak.
- c) Beste izen batzuk dituzten arren, haien edukien eta parte hartzen duten eragileen profilaren arabera, b) paragrafoan aipatu ditugun parekoak izan daitezkeen ekitaldiak. Kasu honetan, eskaera egin duen erakundeak dokumentu bidez ziurtatu beharko ditu aurrez ikusitako helburu eta kontaktuak.

3.- Onuradunak

Pertsona fisikoak edo juridiko-pribatuak izatea eta helbidea edo egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan izatea. Gainera, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioko Ikus-entzunezkoen Arteetako eta Zinematografiako Institutuko (ICAA, gaztelaniaz) zinematografiako eta ikus-entzunezkoetako enpresen administrazioko erregistroan izena emanda egon beharko

dute.

Ezingo dituzte laguntzak jaso honako hauek:

- Laguntza publiko edo diru-laguntzak lortzeko aukera galduta zigor penal edo administratiboa ezarrita duten erakunde edo pertsonak, edo horretarako ezgai egiten duen lege-debekua duten erakundeak, Gizon eta Emakumeen berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeko seigarren azken xedapenak ezarritakoaren arabera sexu-bazterkeriak eragindakoak barne.
- Diru-laguntzei buruzko 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13.2 eta 13.3 artikuluetan jasotako gorabeheraren bat betetzen duten pertsonak edo erakundeak.
- Sektoreko elkarte profesionalak.

4.- Laguntzen helmuga, zenbatekoa eta muga

- a) Laguntzak talde edo enpresako ordezkari batek azoketara edo ekitaldietara joateko egin behar diren joan-etorrien, ostatuaren, dieten eta akreditazioaren gastuak ordaintzeko izango dira.
- b) Standa alokatzea eta egokitzea.

Inola ere ez da diruz lagun daitekeen gastua izango BEZ kengarriaren zenbatekoa pertsona edo erakunde onuradunak aipatutako zergaren aitorpena egiteko betebeharra duenean.

Deialdi honetan aurrez ikusitako laguntzetarako guztizko gehieneko zenbatekoa berrogeita bost mila eurokoa (45.000 €) izango da eta laguntza honek biltzen dituen bi deialdien artean banatuko da:

- a) 15.000 € 2020ko urtarrilaren 1etik apirilaren 30era bitartean sortutako gastuak estaltzeko.
- b) 30.000 € 2020ko maiatzaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko aldirako.

Diru-laguntzak kalkulatzeko gehieneko erreferentziak:

1.- Honela banatuko dira laguntzak:

a) Joan-etorrietarako gastuak:

- Garraio publikoa: txartel arruntaren kostua.
- Norbere autoa: 0,25 euro km bakoitzeko, gehi autobideko eta aparkalekuko gastuak. Kilometroak kalkulatzeko, abiapuntua eskatzailearen establezimendua edo egoitza soziala izango da.
- Alokaturako ibilgailua: alokairuaren kostua, erregaia, autobideko gastuak eta

aparkalekua.

b) Ostatua: 75 euro Espainian, 120 euro Espainiatik kanpo.

c) Mantenu-dietak: 40 euro Espainian, 60 euro Espainiatik kanpo.

2.- Diru-laguntzetarako mugak:

a) Azoka edo ekitaldia egingo den tokiaren arabera:

- 5.000 km baino gehiagoko distantziara: 1.000 euro.
- 1.201 eta 5.000 km arteko distantziara: 800 euro.
- Gehienez 1.200 km-ko distantziara: 500 euro.

Kilometroen kopurua honela kalkulatu da: pertsona fisikoaren edo juridikoaren egoitza, egoitza sozialetik edo establezimendutik jarduera egingo den tokira arte dagoen joan-etorriko distantzia.

b) Onuradun bakoitzeko muga orokorra:

Onuradun batek jasotako diru-laguntzen baturak inola ere ezingo du **3.000** euro baino gehiagokoa izan.

3.- Diru-laguntza ematea eta, dagokionean, ordaintzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren organismo autonomoek emandako eta izaera bera duten diru-laguntzen edo laguntzen baitan hasitako itzultzeko edo zehapeneko beste edozein prozedura amaitzearen mende egongo da, hura izapidetze-bidean dagoenean oraindik. Gainera, diru-laguntza ematea eta, dagokionean, ordaintzea jasotako diru-laguntza itzultzearen mende egongo da itzultzeko prozedura bat amaitzean, horren inguruko ebazpena eman denean.

5.- Eskaerak, epeak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau ZINEUSKADIren webgunean **argitaratzen den hurrengo egunean zenbatzen hasiko** da, eta **argitaratu eta hilabete batera amaitu**. Diru-laguntzen lerroak bi deialdi biltzen ditu: lehenengoa **2020ko urtarrilaren 1etik apirilaren 30era** bitarteko aldia estaltzeko, eta bigarrena, **2020ko maiatzaren 1etik abenduaren 22ra** bitarteko gastuak arintzeko.

Eskaerak I. eranskinean dagoen instantzia-ereduan formalizatuko dira eta zehaztutako dokumentazioa gehitu beharko zaio. **Eskaera horiek posta-helbide honetara bidali beharko dira: info@zineuskadi.eu**. Jasotako eskaeratzat hartuko dira hartu izanaren agiria eta Zineuskadi elkarteak emandako espediente-zenbakia dutenak.

Eskaerak aurkezteak deialdi honetako oinarriak ezartzen dituzten baldintzak modu formalean eta espresuki onartzea dakar berekin.

6.- Aurkeztutako eskaeran egon daitezkeen akatsak konpontzea

Laguntza-eskaera baldintza guztietan beteta ez balego, ZINEUSKADI elkarteko zerbitzu teknikoek eskatzaileari ikusitako akatsak konpontzeko eskatuko diote. Errekerimendu hori jakinarazpen-helburuetarako eskatzaileak emandako posta elektronikora egingo da. Aipatutako helbideak erabilgarri egon beharko du prozesu osoan. Errekerimenduari eta eskatutako zuzenketari 10 eguneko epean erantzunik ez emateak eskaera aurkezteari uko egitea eragingo du.

7- Balorazio Batzordea

Aurkeztutako eskaerak aztertzeko eta ebaluatzeko, Balorazio Batzordea eratuko da.

Kide hauek osatuko dute Batzordea:

- a) ZINEUSKADIKo presidentea: Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sustatzeko zuzendaria edo, bestela, boterea eskuordetzen dion pertsona.
- b) ZINEUSKADIKo nazioartekotze arloko arduraduna: Jara Ayucar.

Batzorde horrek, ezarritako esleipen-irizpideen arabera, diru-laguntza emateko proposamena adostu eta ZINEUSKADI elkarteko Zuzendaritza Batzordeari aurkeztuko dio.

Balorazio Batzordeak, aurkeztutako eskaerak behar bezala ebaluatu ahal izateko beharrezkotzat jotzen duenean, eskatzaileei beharrezkotzat jotako azalpen guztiak eskatu ahal izango dizkie.

8.- Bateragarritasuna

Deialdi honetan emandako laguntzak beste edozein erakunde publiko edo pribatuk emandako eta helburu bera duten beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekiko bateraezinak izango dira.

9.- Emateko akordioa

1.- Balorazio Batzordeak aurkeztutako eskaerak aztertu eta ebaluatzen dituenean, Batzordeak dagokion txostena eta laguntzak emateko proposamena aurkeztuko dizkio ZINEUSKADI elkarteari. Ondoren, elkarteko presidentek laguntzak emateko akordioa emango du.

2.- Deialdi honetako laguntzak emateko akordioa ZINEUSKADIREN webgunean argitaratuko da nahi dutenek horren berri izan dezaten eta mezu elektronikoz jakinaraziko zaie laguntzak eskatu dituztenei. Jakinarazpen-data gisa lehenengo gertatu dena hartuko da.

3.- Interesa duen pertsona edo erakunde bakoitzari ebazpena emateko eta ebatzitakoaren berri emateko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da dagokion eskaera aurkeztu den hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epe hori inolako ebazpenik eman gabe igaroko balitz, interesdunek haien diru-laguntza eskaera onartutzat eman dela ulertu ahal izango dute.

10.- Pertsona edo erakunde onuradunen betebeharrak

Ordainketaren agindua onuradunen alde emango da, modu nominatiboan, eta ordainketa bakarrean egingo da. Laguntzaren ordainketa eman eta justifikazioa jasotzen den unetik aurrera izapidetuko da, onuradunak onartu ostean.

Deialdi honetan araututako laguntzen onuradunak diren subjektuek betebeharrak hauek bete beharko dituzte:

- a) Emandako laguntza onartzea. Horrekin lotuta, laguntza eman izanaren jakinarazpena jasotzen den datatik zenbatzen hasi eta hamabost egun balioduneko epean erakunde onuradunek espresuki laguntzari uko egingo ez baliote, onartuta geratu dela ulertuko da.
- b) **Basque.Audiovisual**.en laguntza aipatu beharko da espresuki deialdiarekin lotutako jarduerari buruzko sustapeneko euskarrietan eta aleetan.
- c) Helburu bera duten eta Estatuko zein nazioarteko edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatutatik iritsitako beste laguntza edo diru-laguntza batzuk jaso izana jakinarazi beharko zaio ZINEUSKADIrri.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren mendeko laguntzak eta diru-laguntzak jasotzearekin lotuta ezarrita dagoen beste edozein betebeharrak edo eginkizun.

11.- Diru-laguntza ordaintzea

Emandako diru-laguntza ordainketa bakarrean gauzatuko da, jarduera amaitutakoan, eta dagokion justifikazioa aurkeztutakoan.

Onuraduna bere zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekin lotutakoak betetzeari dagokionez egunean ez dagoen edo diru-itzuleraren jatorria aitortzen duen ebazpenaren arabera zorduna den bitartean ez da inolako ordainketarik egingo.

Diru-laguntza horien onuradunak diren pertsonak edo erakundeek I. ERANSKINEAN eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko dute, betiere, diruz lagundutako jarduera amaitu eta hurrengo hiru hilabeteetan eta ezarritako epean aurretik (**2020ko maiatzak 31** eta **abenduak 22**).

12.- Ez betetzeak

1.- Ez bete izanaren kasuak izango dira hauek:

- a) Diru-laguntza lortu izana horretarako eskatutako baldintzak faltsututa edo lortzea eragotziko zuketena haiek ezkutatuta.
- b) Deialdi honetan aurrez ikusitakoekiko ezberdinak diren jardueretarako jasotako laguntzak erabat edo partzialki aplikatzea.
- c) Deialdi honetan ezarritako betebeharrak edo, dagokionean, emateko ekitaldian ezarritakoak ez betetzea.

- d) Dagokionean, laguntzaren likidazio-akordioan horretarako ezarritako epean zenbatekoa ez itzultzea.
- e) Beste edozein xedapenetan izaera orokorrarekin ezarrita dagoen eta derrigor bete beharra dagoen beste edozein.

13.- Itzultzea

Onuradunak emandako laguntza bete izana behar bezala justifikatuko ez balu edo aurreko ataleko kasuren bat beteko ez balu, ordaindutako laguntza osorik edo partzialki eta laguntza ordaindu den unetik itzulera egin den unera arteko berandutze-interesak itzultzea eskatuko zaio proportzionaltasuneko printzipioak ezarritakoaren arabera.

XEDAPEN OSAGARRIA

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Jabetza Publikoko eta Sormeneko Izaera Pertsonaleko Datuen Fitxategiei buruzko 2004ko otsailaren 25eko 2/2004 Legeak xedatutakoa betez, deialdi hau izapidetzeko garaian jasotako datu pertsonalak fitxategi batean jasoko dira (datu horien tratamendua eta argitalpena baimendu dute bertan parte hartzen dutenek). Fitxategi horren helburua izango da diru-laguntzen deialdi hau eta harekin lotutako beste edozein administrazioko espediente edo prozedura kudeatzea eta deialdian parte hartu duten pertsonen garapenaren inguruko informazioa ematea. ZINEUSKADI elkarteak da fitxategi horren arduraduna. Datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko, ezeztatzeko eta haiei aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dira ZINEUSKADIren aurrean. Horretarako, helbide honetara jo beharko da:

ZINEUSKADI elkarteak

TABAKALERA eraikina (3. solairua)
Andre zigarrogileak plaza, 1
20012 Donostia

Gainera, deialdi honetan parte hartu duten pertsonen fitxategian jasotako datu pertsonalak Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio publiko batzuei uzteko baimena ematen dute deialdiaren helburuarekin bat datozen helburuetarako. Gainera, ZINEUSKADI elkarteari baimena ematen diote beste erakunde publiko batzuetan aurkeztutako dokumentuak egiazkoak direla egiaztatzeko.

Donostian, 2020ko apirilaren 30ean

Zineuskadi elkarteko presidentea
Aitziber Atorrasagasti Calcedo